

Kalitatezko despedidea urteari

MIKEL URDANGARINEN KONTZERTUA

Iruñeko Zentral Kafe Antzokian, 2015eko abenduaren 30ean. Areto ia betea, giro lasaian. Bi ordu luze, bis ugarirekin.



Julen Leuza Izkue

@JulenLeuza

Urte bukaeran kontzertua egiteko ohitura izan du Urdangarinek azken boladan. Honakoan, tokia aldatu eta Iruñea hotza aukeratu zuen, Bilboko Kafe Antzokiko giro goxoa alboan utziz, esperientzia arriskutsuak ere probatu behar baitira. Gauzak horrela, harrera ona eman zitzaiola esanen nuke, zuzenekotan eszenatoki aurrean derrigorrezko bi metro huts uzten diren hiri honetan. Taldearen kalitateak merezi zuen behintzat.

Berak sarri aitortu bezala, luxuzko banda zeraman atzean zornotzarrak: gitarra elektrikoan Rafa Rueda maisua, Telecaster miragarriari soinu leun zein gogorak atereaz. Koldo Uriarte teklatu eta melodikan, base harmonikoa fin mantenduz. Nika Bitchiasvilik, arrabitarari zuku birtuosoak atera zizkion. Jon Cañaverasek Urdangarinen bandan ohikoa ez den gitarra apala gustu ederraz jo zuen, hura gozatua, eta Angel Celada bateranoa ari zen baterian. Azken honek



BEA MARTINEZ

harridura oihuren bat sorrarazi zuen publikoan bere izena entzun genuenean, eta ez da gutxiagorako, gasteiztarra El Último de la Fila, Joan Manuel Serrat edo Mecano bezalako talde eta abeslariekin aritua izan dela kontuan hartuta. Urdangarinek berak esan bezala, ilerik urdinena bazuen ere, berak zekarren energiari handiena eszena gainera. Kalitate handiko banda aparta, edozein kantari atzerritar famatuk eraman zezakeenaren mailakoa. Soinu mahaian Mikel F. Krutzagaren hatzek lan ederra egin zutela aipatu behar da, baita ere. Harritzeko apuntea, bestetik, tarteka taldeak hartu zuen bolumena eta izaera gogorra.

Errepertorioan, orokorrean mitikoak: *Lau Koplatxorekin* hasi, eta jarraian hainbat diskotako kantu ezagun ugari aletu zituzten. Iruñeko publikoa ez da Bilbo edo Donostiakoa, eta argi geratu zen, kantuek ez baitzuten norma-lean izan ohi duten koroaren laguntzarik

jaso. Hala ere, ezagunenak txalo zaparradaz hartu zituzten iruinseme zein iruinalabek. Hiru bertasio: Laboaren *Martxa Baten Lehen Notak*, *Baratze Bat* akaberrako, eta Black-en *Wonderful Life* zoragarria. *Bazkalosteko Kafea*, *Txatxamatxalinatxu* edo *Panderuaren Gizona* bezalako batzuk jo ez zituztenez, bertasioak soberan zeudela pentsatu genuen askok. Kantariaren kontzertu gehiagotan egon garenok badakigu *Badira Hiru Aste* edo *Oihana* kantuen aurretik aurkezpen istorioa datorrela, berak dioen bezala literatura apurrez doitu. Mikel Urdangarinen kontzertua ez litzakeelako Mikel Urdangarinen kontzertua bestela.

Duela 20 urte hasi zen kantuan, baina bera ikustera doan publikoa gaztea da beti. Duela 20 urte ere Iruñea Heavy Metala dela esaten zuten Skalariek. Tira, orain gazterian ska musikak hegemonia duen garai honetan, kantu lasai eta atseginei aukera bat eman zioten hiri buruzagian. ■